

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektu batek edota negozio-eredu batek behar bezala funtziona dezan, hainbat funtsezko baliabide hartu behar dira kontutan. Gure proiektuaren kasuan, honako hauek dira baliabide nagusiak:

- Baliabide fisikoak
- Baliabide intelektualak
- Giza baliabideak
- Finantza-baliabideak

Baliabide hauek ahalbidetuta; helburu nagusienak, gure bezeroengana iristea, beraiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak lortzea dira.

### → **BALIABIDE FISIKOAK:**

Gure kasuan, hainbat baliabide fisiko erabiliko ditugu, hoako hauek esaterako:

- ★ **Bulegoa:** Bertan, negozio-eredu honetako kideak batuko gara eta gure bezeroen beharrak eta etxebizitzaren nagusiek eskeintzen dizkiguten aukerak aztertuko ditugu denon artean. Beraz, kide guztion artean egin beharreko zereginak egiteko, bilerak egiteko eta abar gure bulegoan elkartuko gara.
- ★ **Ibilgailuak:** Etxebizitza bakoitza ikustera joateko edota bezeroekin aurrez aurre biltzera joateko, auto bat erabiliko dugu.
- ★ **Sistema informatikoak:** Gure negozioa aurrera eramateko, sarean web-gune bat sortuko dugu, beraz horretarako, ordenagailu bat gutxienez erabiliko dugu.

### → **BALIABIDE INTELEKTUALAK:**

- ★ **Datu baseak:** Ikasleen edota bezeroen datu batzuk jasoko ditugu, baita gure etxebizitzaren datuak ere. Horrela, bezero

bakoitzari beretzako egokiena den aukera eskeini ahalko diogu.

### → GIZA BALIABIDEAK:

Baliabide hau, negozioa sortzen dugun kideoi dagokigu.

★ **Sormena:** Enpresa bat sortzen den momentuan, sormena funtzesko baliabide bat dela esango genuke. Hainbat ideia bota behar dira mahai gainera eta ondoren egokiena dela iruditzen zaiguna aukeratu. Gure kasuan, ideak aldatzen joan gara eta azkenik, gure ustetan egokienarekin gelditu gara.

★ **Ezagutza:** Hirietan dauden etxebizitzaren inguruan eta ikasleak behar dituzten beharrak aztertzen ibili gara. Honen bitartez, orain arte eskeini ez diren hainbat gauza eskeini ahal izango ditugu.

### → FINANTZA-BALIABIDEAK:

★ **Esku-dirua:** Hasiera batean ez dugu izango dirurik materiala erosteko, edota beste hainbat gauzarako. Beraz, hasiera batean bakoitzak bere aurrizkiak jarriko ditugu.